



# Ekonomia solidarioaren instituzionalizazioa Latinoamerikan



Dokumentu hau **reas** Euskadiko “Ekonomia Sozial eta Solidario baterako Tokiko Politika Publikoak” proiektuaren barruan kokatzen da. Zenbait jardueraren bitartez (ikerketa, prestakuntza, herritarrak sentikortzea, hedapena eta erakundeekiko elkarrizketa), Ekonomia Sozial eta Solidarioko printzipioetan eta praktiketan oinarritutako politika publikoak identifikatu nahi dira, bai eta lurraldeen eraldaketaren zerbitzurako tresnak garatu ere, ekitate-, iraunkortasun- eta solidaritate-irizpideetan oinarrituta.

Finantzatzen dute:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Venezuela plaza 1, 2 Ezk.-Ezk  
48001 Bilbao  
reaseuskadi@reaseuskadi.net  
[www.economiasolidaria.org/reaseuskadi](http://www.economiasolidaria.org/reaseuskadi)



Aitorpena-Ez komertziala-3.0 lizentzia beraren pean partekatzea Agiri hau Creative Commons-en lizentziapean dago.

Askatasun osoz kopia, banatu eta publikoki jakinaraz daiteke, baldin eta egiletza aitortzen bada eta helburu komertziala- rako erabiltzen ez ba da. Hori aldatu, eraldatu edo eratorritako obrarik sortzen bada, lizentzia honen pean soilik banatu ahal izango da. Lizentzia osoa. Lizentzia osorik: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

## .....• Sarrera

Ondoren, ekonomia solidarioak Latinoamerikako hainbat herrialdetan izan duen instituzionalizazioaren hainbat esperientzia biltzen ditugu, halakotzat hartuta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren erakunde juridiko edo politiko-administratibo espezifikoaren sorrera edo birdefinizioa. Instituzionalizazio horiek gizartearen adierazpen praktikoak eta eskaerak (*bottom up*) izan litezke, edo Estatuaren borondatez jarioak (*top-down*).

Illo horretatik, eta Coraggiori jarraituz (2014: CORAGGIO, J.), oraingoz ezin dira "estatu politikatzat" hartu, baizik eta dagokien gobernuen politikatzat; hark adierazten du, halaber, instituzionalizazio horiek ondo finkatutako jardunetan oinarritzen ez badira eta horien helburua bada nagusi diren jardunak (asistentzialismoa) aldatzea edo talde partikularren jokabide ereduak (kooperatibismoa) zabaltzea, hamarkadan zehar erakunde horiek izandako bilakaerak aditzera ematen duela:

- a) Erraz galdu dezaketela indarra, boterearen beraren ekintza boluntario baten edo gobernuen zeinu-aldaketan ondorioz.
- b) Denboran irauteko eta hasitako prozesuan sakontzeko beharrezkoa dela eragile kolektibo finkoek onartzea eta horri eustea eta gobernuekin etengabe elkarriketan jardutea.

Ekonomia Sozial eta Solidarioaren instituzionalizazio horren sorrera araudien garapen sakon samarren ondorioa da. Zentzu horretan eta aztertutako garapen arauemailetan "ekonomia solidarioa" terminoaren erabilerari erreparatuta, bi orientabide nagusi bereizten dira (2012; GUERRA, P).

- 1) **Orientabide sektoriala:** Ekonomia solidarioa ekonomiaren hirugarren sektore gisa hartzen du, ekonomia kapitalista eta estatalaren bestelakoa, izaera asoziazionistakoa, lankidetzaren eta elkarren arteko laguntzaren gisako balioek zuzendua. Kolonbiak ondo ordezkutzen du bide hau.
- 2) **Orientabide autokudeatzailea:** Kudeaketa eta jabetza eredu kolektibo bati egiten dio erreferentzia. Era honetara definitzen dira: "ekintzailtza ekonomiko bateragarriak, zeinetan lana, emaitza ekonomikoak, baliabideen jabetza, erabakitze gaitasuna eta funtzionamenduari buruzko ezagutzak modu solidarioan partekatzen baitituzte bertan parte hartzen duten pertsona guztiek" (2011; CRUZ).

Bi orientabide handi horiez gain, eta Pablo Guerrari jarraituz, intentsitate gehiagoz edo gutxiagoz sortutako ikuspegi berriak identifika ditzakegu:

- **Herri dinamismo berrietarako orientabidea.** Biziraupenerako edo garapenerako estrategia gisa solidaritate ekonomikoaren loturetara jotzen duten eragile berrien zein antzinako eragileen herri adierazpentzat hartuta ekonomia soziala. Andetar herrialdeetan ohikoa da antzinako eragileetara jotzea.
- **Orientabide alternatiboa.** Ekonomia solidarioa jardunbide nagusientzako jardunbide alternatiboaren adierazpen gisa hartuta, zeinetan ez den nabarmentzen ez forma juridikoa edo kudeaketa eredu, ezta ekintzailtza ekonomikoaren egiazko helburua ere. Hemen sartzen dira, hain zuzen ere, software librea, ekoizpen organikoa, teknologia alternatiboaren enpresak, etab.

—● **Sistema ekonomikorako orientabidea.** Ekonomia solidarioa ez da sektore ekonomiko baten edo jardunbide multzo baten modura ikusten, baizik eta hainbat jardunbide eta sektore hartzen dituen sistema ekonomiko gisa. Zentzu horretan ulertzen da Ekuadorko Erreforma Konstituzionala.

—● **Orientabide hibridoa.** Mota askotako eragileek eta erakundeek orientabide solidarioarekin egindako jardunbidetzat hartuta ekonomia solidarioa. Estatutik (zergen bitartez) eta enpresa kapitalistetatik (Gizarte Erantzukizun Solidarioaren bitartez) egin dezakete ekonomia solidarioa.

Agiri hau egiteko, bi egileren lanean oinarritu gara, bigarren mailako iturrien berrikusketaz eta aipatutako legediaren azterketaz gainera; alde batetik, Jose Luís Coraggio<sup>1</sup> eta 2014an Latinoamerikako instituzionalizazioari buruzko haren lana, eta, beste alde batetik, Pablo Guerrak<sup>2</sup> 2013an Latinoamerikako ekonomia sozial eta solidarioaren alorreko legediei buruzko berrikusketa eta azterketa.

Sakonago aztertu ditugun bost kasuak hamarkada bakar batean gertatu diren aldaketa garrantzitsuen laburpen gisa balia daitezke. **Argentinan eta Brasilen, aurretik zegoen esparru arauemaileen doikuntzak** egin dira; Brasil, aldiz, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren sustapenerako gizarte mugimendu eta erakundeen eta erakunde politiko publikoen arteko eraikuntzakidetzaren adibidea da. Beste muturrean daude **Bolivia eta Ekuadorko** esperientziak; trantsizio luzea beharko duten aldaketa sakonagoak proposatzen dituzte, baina, Coraggioren hitzetan, abantaila bat dute, hain zuzen ere gaur egun erabat onartuta dauden erresistentzia edo biziraupen ekonomikoko formen historian daudela oinarrituak. **Venezuelaren** kasuan, baliabideak ez ezik, eragile ekonomikoen kultura aldatzea eskatzen duten **eraikitako tipo idealetatik** abiatuta egindako aldaketa handiagoen proposamenei buruz hitz egiten du Coraggiok.

Azkenik, beste bi erreferentzia txertatu ditugu: **Kolonbia eta Mexiko**, bi herrialde horietan antzeko esperientziak egin direlako, nahiz eta garrantzi txikiagoak izan.

---

1 Argentinan ekonomialari eta ikerlaria, Ekonomia Sozial eta Solidarioan espezializatua, UNGSko Ekonomia Soziala Maisutzaren Zuzendaria, Ekonomia Sozial eta Solidarioko Latinoamerikar Ikerlarien Sarearen koordinatzailekidea (RILESS) eta "Otra Economía" Aldizkariaren zuzendarikidea. "La presencia de la Economía Social y Solidaria (ESS) y su Institucionalización en América Latina" lana Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Estatu Nagusietarako prestatu zuen, Paris, 2014ko ekainak 17-19.

2 Zuzenbide Fakultateko irakasle-ikertzailea, Errepublikaren Unibertsitatean (Montevideo-Uruguai). "Las legislaciones sobre economía social y solidaria en América Latina: Entre la autogestión y la visión sectorial" lana "Políticas de Trabajo, de Empleo y de Inclusión social. Análisis del caso nacional en una perspectiva regional comparada" Ikerketa Proiektuaren esparruaren barruan osatu zen, Lan Harremanen Lizenziaturan, Zuzenbideko Fakultatea, UdelaR eta Zuzenbideko Fakultateko Aldizkarian argitaratu zen, 33. zk., 2013ko uztaila-abendua (73-94. or.).

## Argentinako Errepublika

### Erreferentziak

**Nazioaren Gizarte Garapeneko Ministerioa:** [<http://www.desarrollosocial.gov.ar/>]

26.117 **Lege Nazionala** "Gizarte ekonomiaren garapenerako mikrokredituen sustapenari buruzkoa":

[<http://infoleg.mecon.gov.ar/infolegInternet/anexos/115000-119999/118062/norma.htm>]

### Instituzionalizazioa

**Gizarte Ekonomiako Idazkaritza**, Nazioaren Gizarte Garapeneko Ministerioaren barruan (1999). Helburua: zerbitzu eta aholkularitza okupazionala eskaintzea Argentinako lurralde guztietan; baliabide publikoen esleipena kudeatzea eta administratzea eta enplegua sortzeko programak zehaztea.

**Elkartegintzaren eta Ekonomia Sozialaren Institutu Nazionala –INAES-** (2000) Gizarte Garapeneko Ministerioan sartu da eta helburua du Gizarte Ekonomia arautzea, kontrolatzea eta sustatzea, Mutualitateei eta Kooperatibei dagokienez.

**"Toki Garapenaren eta Ekonomia Sozialaren efektoreen" Erregistro Nazionala** (2004) gizarte mikroekintzailtzak erregistratzeko. "Mikrozerga Soziala" deituak aukera ematen die bertan erregistratutako pertsona fisikoei merkataritza-jarduerak fakturarekin egiteko eta gizarte segurantza sisteman sartzeko.

**Ekonomia Sozial eta Solidarioko Zuzendaritzak probintzia eta udal mailan** Argentinako 24 probintzietatik 14tan, Buenos Airesko Hiri Autonomoan eta herrialdeko udalerrri handienetan. Gizarte Garapeneko Ministerioaren baliokideetan kokatuta daude, sektore pobre eta zaugarrienetara zuzenduak.

### Garapen Arauemailea

**"Manos a la Obra", Toki Garapenaren eta Ekonomia Sozialaren Plan Nazionala** (2003) Argentinako ESSen instituzionalizazio-prozesuaren jatorri gisa. Helburua: gizarte inklusioa sektore pobre eta/edo enplegu arazoak dituztenen proiektu sozio-produktiboen bitartez. Esparru hauek bultzatu nahi zituen:

- a) Ekintzailtza produktiboak eta/edo zerbitzuak, pertsona bakarrekoak, familiarrak, asoziatiboak eta/edo komunitarioak
- b) Funtz solidarioak eratzea
- c) Kooperatibak eta Mutualitateak sendotzea
- d) Eremu asoziatiboak, Kontsulta Kontseiluak eta gizarte zibilaren erakundeak sendotzea
- e) Probintzia eta udalerrietako ekipo teknikoen gaikuntza
- f) Onuradunei laguntza teknikoa eta gaikuntza eskaintzea, proiektuak formulatzeko eta gauzatzeko

26.117/2006 **Lege Nazionala**, "Gizarte Ekonomiaren garapenerako mikrokredituen sustapenari buruzkoa", zeinak finkatzen duen mikrokredituen sustapena eta arauketa, pertsonen eta baliabide eskaseko taldeen erabateko garapena sustatzeko eta gizarte politikak gauzatzeko zereginean laguntzen duten gizarte zibilaren irabazi asmorik gabeko erakundeak ikuspegi instituzionaletik indartzeko.

“Marca Colectiva” delakoari buruzko 26.355/2009 Legea, Unitate ekonomikoetako taldeen salmenta-gaitasuna hobetzeko, ekoizpen eta merkaturatze arloko estrategia komunak antolatzea, eskalan garatzea, ikusgaitasuna, marketin eta/edo posizionamendu kanpainak, erakusketa eta salmentak. Porroten Legearen Aldaketak (2011), zeinak adierazten duen langileen lehentasuna kreditu bat lortzeko eta enpresaren ekoizpenarekin jarraitzeko.

Nekazaritza eta Abeltzaintza Teknogiaren Institutu Nazionalaren (INTA) Baratzeen aldeko Programa eta Nekazaritza eta Abeltzaintza Programa Soziala (PSA, Nekazaritza Ministerioa), zeinetan bultzatzen zen familia arteko nekazaritza txikiaren antolamendu autokudeatua, bereziki baratze familiarrena edo izaera sozialeko kolektiboena. 2007. urteaz geroztik, Ekonomia Sozialaren garapen politikaren barruan kokatu zen, haren atal gisa.

**Azterketa:** Kasu hau kudeaketa estilo populista baten barruan kokatzen da, eta larrialdi-testuinguruari erantzuteko sortu zen, zeinak larrialdiko politika sozialak eskatzen zituen, baztertu eta pobretu berriak diren pertsona-masei eusteko. Ez dago politiken eraikuntzakidetzarik, baina bai partaidetza, exekuzioaren deszentralizazioaren bitartez. “Ekonomia sozialeko politika soziala” instituzionalizatu da, sektore pobreetan edota lan arazoak dituztenetan fokalizatua eta merkatuan txertatzera bideratua. Aldi berean, lan politika progresiboaren zentraltasunari eusten zaio, Lan Ministerioaren eta familia politiken bitartez, zeinak ikusten diren garapen kapitalista ordenatuko ereduaren berrespen gisa eta ez ekonomiarako ikuspegi berri baten tresna gisa. Argentinan ESSEk mugimendu autonomorik eza da ahultasun nabarmenetako bat.

## Brasilgo Errepublika Federala

### Erreferentziak

**Ekonomia Solidarioaren Brasildar Foroa (FBES):**

[[http://www.fbes.org.br/index.php?option=com\\_frontpage&Itemid=1](http://www.fbes.org.br/index.php?option=com_frontpage&Itemid=1)]

**Ekonomia Solidarioaren Idazkaritza (SENAES):**

[<http://portal.mte.gov.br/ecosolidaria/secretaria-nacional-de-economia-solidaria/>]

**UNITRABALHO:** [<http://www.unitrabalho.org.br/>]

### Instituzionalizazioa

**Ekonomia Solidarioaren Brasildar Foroa (FBES)**, hiru eragile hauek hartzen dituena: ekintzaile ekonomiko solidarioak, gizarte zibilaren sustatzaileak eta kudeatzaile publikoak. Munduko Gizarte Foroaren (2001) garaikoa da, eta bertan sortu zen Ekonomia Solidarioaren Brasildar Lan Taldea.

**Ekonomia Solidarioaren Idazkaritza (SENAES 2003)**, Lan eta Enplegu Ministerioari atxikia. Helburua: ekonomia solidarioari laguntzeko jarduerak erraztea eta koordinatzea lurralde osoan, enplegua eta diru-sarrerak sortzeko, inklusiorako eta garapen zuzena eta solidarioa sortzeko helburuarekin.

2006ko ekainean izan zen **Ekonomia Solidarioaren lehenengo Konferentzia Nazionala (CONAES)**, ekonomia solidarioa sendotzeko gobernuaren eta gizarte zibilaren arteko elkarrizketarako espazio gisa. 2014ko azaroaren amaieran, III. Konferentzia Nazionala egin zen Brasilian, lema honekin: “Ekonomia Solidarioko Plan Nazional bat eraikiz, modu iraunkor eta asoziatiboan ekoizteko eta bizitzeko eskubidea sustatzeko”.

**Ekonomia Solidarioaren Kontseilu Nazionala (CNES 2003)**, kontsultarako eta proposamenetarako organoa, FBESen antzera hainbat eragilez osatua.

**Ekonomia Solidarioari buruzko Informazioen Sistema Nazionala (SIES) -2005-**, ekonomia sozialeko ekintzailatzen lehenengo mapaketaren emaitza gisa.

**Bidezko Merkataritza Solidarioaren Sistema Nazionala (SCJS) -2010-** Besteak beste, helburu hauek ditu: (1) merkataritza bidezkoaren eta solidarioaren nortasun nazionala sendotzea, bidezko merkataritzaren kontzeptua, printzipioak eta merkataritza mota horretako jardunbideak ezagutzeko irizpideak eta haren sustapena zabalduz; (2) prezio zuzenaren jarduna sustatzea, ekoizten, merkaturatzen eta kontsumitzen duenarentzat; (3) SCJJSen arauak errespetatzen dituzten produktuak, prozesuak, zerbitzuak eta erakundeak zabaltzea eta (4) ekintzailatza ekonomiko solidarioak, egiaztapenerako eta adostasun-ebaluaziorako erakundeak eta bidezko merkataritza eta merkataritza solidarioa babesteko eta sustatzeko erakundeak babestea.

**Herri Inkubagailu Kooperatiboen Programa Nazionala (PRONINC)- UNITRABALHO**-Herri Kooperatiben Inkubagailu Teknologikoen sarea (ITCP). Ekintzailatza solidarioen inkubagailuak dira, unibertsitatean kokatzen direnak, diziplina arteko izaera argiarekin. Irakasleek, teknikariek, bekadunek eta ikasleek osatuta daude. UNITRABALHO da inkubagailu horiek hartzen dituzten unibertsitateen sarea eta PRONINC da inkubagailu horiei baliabideak ematen dien gobernu federalaren programa. Lehenengo inkubagailua 1996an sortu zen eta 2011. urterako 70 inkubagailu zeuden. 70 unibertsitate baino gehiago daude UNITRABALHO sareari atxikiak

**Ekintzailatza ekonomiko solidarioen Katastroa (CADSOL) 2014**

#### Garapen Arauemailea

FBES foroak sinadurak biltzeko kanpaina bat jarri zuen abian 2011. urtean, CNESek egin eta 2010ean Diputatuen Ganberara eraman zen Ekonomia Solidarioko Lege proiektua babesteko. Proiektu horrek Ekonomia Solidarioko Sistema Nazional bat eta Funtz Nazional bat sortzea proposatzen du. Ekonomia Solidarioko Lege bat lortzeko zailtasunek aditzera ematen dute Estatuak kontra egiten diola haren onespenerari, garapen alternatiboko bide gisa.

2004. urteaz geroztik, estatu federal eta udalerrri askok legeak edo dekretuak egokitu dituzte Ekonomia Solidarioa, ekintzailatza ekonomiko solidarioen ziurtapen politikak –besteak beste, ekonomia solidarioko zigiluak– sustatzeko. Estatu hauek nabarmentzen dira: Rio de Janeiro, Rio Grande do Sul, Bahia, Piauí, Pernambuco, Mato Grosso do Sul, Distrito Federal; eta udalerrien artean: São Carlos, São José dos Pinhais, Itajaí, Londrina, Santa María, besteak beste.

**10.638 legea, 2003an**, zeinaren bitartez sortu zen Ekonomia Solidarioko Idazkaritza Nazionala (SENAES) eta Ekonomia Solidarioko Kontseilu Nazionala (CNES)

**2010eko azaroko 7358 Dekretuak** Bidezko Merkataritza Solidarioaren Sistema Nazionala (SCJS) ezarri zuen

**2014ko azaroko 1780 Ordenantza**, Ekintzailatza Ekonomiko eta Solidarioen Katastroa eratu zen (CADSOL)“

**Eskolako Elikaduraren Programa Nazionala (PNAE)**, zeinak adierazten duen Hezkuntzaren Garapenerako Funtz Nazionalaren (FNDE) baliabideen %30, gutxienez, eskolako elikadurarako izango dela, nekazaritza familiarreko produktuak erosteko, hain zuzen ere.

**Elikagaiak Erosteko Programa (PAA)**: nekazarien kokalekuetako eta komunitate tradizionalakiko produktuak erosteko, hala nola herri indigenena eta “quilombo”ena (esklabo beltzen ondorengoak).

**Azterketa:** Brasilek badu ezaugarri bereizgarri bat, hain zuzen ere, ekonomia solidarioaren mugimendu bat (ecosol) osatu izana aurretik, FBES izenaren bitartez instituzionalizatu zena. Eraikuntzaketza prozesu bat da, Estatuaren eta gizarte mugimenduen artekoa, mugimenduaren burokratizazioa sortu duena, bestalde. Estatu politikaren agerietan, Ekonomia Solidarioa lanik eza konpontzeko bide gisa agertzen da, egiturazko aukera bat baino gehiago, eta politika publikoak laguntzeko, zabaltzeko eta sektore horretako ekintzaitzak kateatzeko tresna bat dira. SENAESen diskurtsoa gizarte politika konpentsatorioa baino haratago doa, eta prozesu ekonomikoak antolatzeko irtenbide gisa proposatzen du ESS.

Baina baditu, halaber, beste ezaugarri batzuk ere: (1) deszentralizazioaren bokazioa, tokiko eta estatuko egitura artikulatuak sortuz; (2) Ekonomia Solidarioa, maila apalagoan bada ere, hainbat ministeriotako diskurtsoan agertzen da: Nekazaritzaren Garapena, Hezkuntza, Gizarte Garapena, Gosearen kontrako Borroka eta Lana eta Enplegua; (3) Ekonomia solidarioko proposamen batek nekazaritzarako lurra zuzen ez birbanatzearen arazo larriari heldu beharko lioke.

## Venezuelako Bolivartar Errepublika

### Erreferentziak

#### Venezuelako Konstituzioa:

[[http://www.inpsasel.gob.ve/moo\\_doc/ConstitucionRBV1999-ES.pdf](http://www.inpsasel.gob.ve/moo_doc/ConstitucionRBV1999-ES.pdf)]

#### Ekonomia Sistema Komunalari buruzko Lege Organikoa:

[[http://www.cne.gov.ve/onpc/web/documentos/Leyes/Ley\\_Organica\\_del\\_Sistema\\_Economico\\_Comunal.pdf](http://www.cne.gov.ve/onpc/web/documentos/Leyes/Ley_Organica_del_Sistema_Economico_Comunal.pdf)]

[[http://www.cne.gov.ve/onpc/web/documentos/Leyes/Ley\\_Organica\\_del\\_Sistema\\_Economico\\_Comunal.pdf](http://www.cne.gov.ve/onpc/web/documentos/Leyes/Ley_Organica_del_Sistema_Economico_Comunal.pdf)]

#### Kontseilu Komunalen Lege Organikoa:

[<http://uptparia.edu.ve/documentos/LOCC.pdf>]

#### Komunen eta Gizarte Babeserako Herri Boterearen Ministerioa:

[<http://www.mpcomunas.gob.ve/>]

### Instituzionalizazioa

Ekonomia Sozialaren Garapenerako Estatu Ministerioa (MEDES) -2002- 2004an Herri Ekonomiarako Herri Boterearen Ministerioa (MINEIOP) bihurtu zen eta 2009an berriro ere izena aldatu eta Komunetarako eta Gizarte Babeserako Herri Boterearen Ministerioa izena hartu zuen. Helburu nagusia du Venezuelako Estatuaren jardun demokratikoaren berezko gizarte politikak eta bizi-politikak inplementatzea, gizartearen sustapen, laguntza eta garapen erabatekoaren eta parte hartzailearen alorrean, Gizarte Babeseko sistemaren batzorde, plan, egitarau eta proiektuen bitartez, integralitatean oinarrituta, ez bakarrik muturreko pobrezia egoeran edo gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonen edo gizarte talde zaurgarrien berehalako arreta zuzenari dagokionez, baita eragindako herritarren edo arriskuan dauden herritar zaurgarrien inguruko testuinguruari dagokionez ere. Ministerio horrek indartu egiten du ekonomia komunalaren garapena, planen eta programen garapenaren, sistema mikrofinantzarioaren, ekonomia komunalaren eta gizarte mugimenduen sustapenerako merkataritza eta politika jardueren bitartez, besteak beste.



**Misioak (2003)**, estatuak sustatutako gizarte programa bat da, eredu ekonomikoa ekonomia sozialaren eredu erreal bihurtzeko, herritarrek txertatuz. Estatuaren egitura paraleloak dira, eta horietako batek, "**Vuelvan Caras**", ekimen ekonomikoentzako baliabideak eta pizgarriak mobilizatu zituen, komunitateetatik abiatuta, indar eginez ekoizpen prozesu endogenoen sorreran, tokiko premiak konpontzeko. Oinordetzan jasotako instituzionaltasunaren zailtasunen ondorioz sortu ziren, zeinak adierazi zuen Gobernu Nazionaletik sustatutako eraldaketan abiadura motaren kontrakoa zela.

**Kontseilu Komunalak (2006)**, zeinen helburua den gizarte antolatuak politika eta proiektu publikoen kudeaketan zuzenean parte hartzea. Komuna "tokiko erakunde sozialista bat da, herri antolatuaren ekimen subiranoz eratua, zeinetan eta zeinaren bitartez eratzen den gizarte sozialista", eta beste lege tresna batzuetan adierazten da zein diren erakunde komunitarioak definitzen dituzten berezitasunak: lankidetzak, lan elkartua, zerbitzu kolektiboak eta truke solidarioa sustatzera bideratuak.

### Garapen Arauemailea

**Venezuelako Bolivartar Errepublikaren Konstituzioak (1999)** adierazten du Estatuak Ekonomia Soziala bultzatu behar duela. 308. artikuluan honela zehazten du: "Estatuak industria txiki eta ertainak sustatuko ditu, kooperatibak, aurrezki kutxak, eta baita enpresa familiarrak, mikroenpresak eta lanerako, aurrezteko eta kontsumorako beste edozein elkarte komunitario, jabetza kolektiboko erregimenean, herrialdearen garapen ekonomikoa sendotzeko helburuarekin, herri ekimen batean oinarrituz"

**Elkarte Kooperatiboen Lege Berezia (2001)**. Lege horren helburua da erakunde horiek sektore publikoarekin, pribatuarekin eta modu demokratikoan kudeatzen diren eta izaera asoziatiboa duten enpresek eratutako Ekonomia Sozial eta Parte Hartzailearekin harremana, partaidetza eta integrazioarako mekanismoak edukitzea.

**Herri Ekonomia Sustatzeko eta Garatzeko Legea (2008)**, sistema sozioproduktibo komunitarioa arautzeko helburua duena. Herri ekonomia solidarioaren adierazpenak gehien garatzen dituen lege ekimena da, nahiz eta ez duen zehazki termino hori aipatzen. Erakunde sozioproduktibo komunitarioei buruz egiten duen definizioan aipatzekoak dira "beren burua kudea dezaketen enpresak, jabetza sozialekoak, unitate familiar produktiboak eta baita truke solidarioko taldeak ere".

**Sistema Ekonomiko Komunalaren Lege Organikoa (2008)**, helburu duena Herri Boterea garatu eta indartzea. Horretarako, arauak, printzipioak eta prozedurak ezartzen ditu, Sistema Ekonomiko Komunala sortzeko, funtzionarazteko eta garatzeko. Sistema hori jabetza sozial komunaleko erregimena duten erakunde sozio-produktiboek osatzen dute, Herri Boterearen edo Botere Publikoaren ekimenez edo bi horien arteko adostasunez bultzatuak, ondasunak eta zerbitzuak, eta baita jakintzak eta ezagutzak ere, ekoizteko, banatzeko, trukatzeko eta kontsumitzeko; era horretara, premia kolektiboak ase eta soberakinak gizartean berriro inbertituko dira, plangintza estrategiko, demokratiko eta parte hartzailearen bitartez.

**Estatuaren enpresak edo enpresa pribatuak** komunitateek eta/edo langileek kontrolatutako **gizarte ekoizpeneko enpresa bihurtzeko. Jabetza Sozialeko Enpresa edo Zeharkako Gizarte Ekoizpeneko Enpresa** gisa definitzen dira, Estatuak eragiten dituenak, parte hartzen duen komunitatearen ordezkari gisa. Ekoizpen Sozial Zuzeneko enpresekiko aldea nagusia da azken horiek biztanleriaren autodeterminazioaren ondorioz sortzen direla eta lan kooperatiben forma hartzen dutela (2008).

**Azterketa:** Harreman handia dago ESSko proposamenen eta beste sistema ekonomiko bat eraikitzeke proiektuaren artean. Goitik beherako instituzionalizazio kasu bat da, Estatutik gizarterakoa, alegia. Oztopo bikoitza du: estatu burokratiko eta politika berrien kontrakoaren oztopoa batetik, eta, bestetik, autonomiaz proposatu edo Estatutik datozen aginduak barneratzeko gai diren erakunde gutxi dituen gizartea izatearen oztopoa. Enfasia egiten da enpresa mailako harreman sozial berrietan (langileak jabeak dira eta modu demokratikoan kudeatzen dute enpresa) eta langile horien eta osatzen duten komunitatearen arteko harremanean. Ekonomia Sozialak sistema ekonomikoan duen paperari buruzko etenik gabeko erreferentziak ezaugarritzen du bere helburua: "aldaketa bat lortzea soberakinen jabetze eta banaketa ereduan".

## Boliviako Estatu Plurinazionala

### Erreferentziak

**Boliviako Konstituzioa:**

[[https://www.oas.org/juridico/mla/sp/bol/sp\\_bol-int-text-const.html](https://www.oas.org/juridico/mla/sp/bol/sp_bol-int-text-const.html)]

**Garapen Produktiboko eta Ekonomia Pluralerako Ministerioa:**

[<http://www.produccion.gob.bo/>]

### Instituzionalizazioa

**Garapen Produktiboko eta Ekonomia Pluraleko Ministerioa:** Gizarte eragileekin batera matrize produktiboa aldatzeko prozesua sustatzeko helburuarekin sortu zen, ekonomia plurala indartuz –artisansu, manufaktura, industria eta nekazaritzaren industriako ekoizpenaren bitartez–, naturarekin harmonian, balioa erantsiz, gaitasun produktiboak sortuz eta barneko eta kanpoko merkatuetarako sarbidea demokratizatuz, elikagaien subiranotasunari eta enplegu duinaren sorkuntzaren dibertsifikazioari laguntzeko.

**Garapen agentziak:** erabaki politikoak eta xedapen arauemaileak eragiteko eta inplementatzeko unitateak, dagozkion Ministeriordeen Garapen Arauemaileko Sektore Planaren inplementaziorako ekintzak abian jartzeko eta gauzatzeko aukera ematen dutenak. Agentzia horiek Garapen Produktiboko eta Ekonomia Pluraleko Ministerioaren mende daude eta honako hauek dira: PRO-BOLIVIA matrize produktibo nazionalaren aldaketa bultzatu nahi duena; PROMUEVE-BOLIVIA Boliviako esportazioak eta turismoa bultzatu eta barne merkatua garatu nahi dituen, eta INSUMOS-BOLIVIA inportazio eta esportazio prozesuak babesten dituen eta ekoizle txikiei maileguak ematen diena, sargaiez eta ekipamenduz hornitzeko.

**Enpresa Publiko Produktiboen Garapen Zerbitzua (SEDEM):** helburu du ekonomia plurala garatzen eta sendotzen laguntzea, Enpresa Publiko Produktiboak indartuz, lagunduz eta abian jarriz, balio erantsia sortzeko eta matrize produktiboa egituratzeko printzipioen arabera. Enpresa publiko produktibo horiek elikagaien eta ongarrien ekoizpenaren, aleen ekoizpenaren, paperaren eta kartoizko kutxen ekoizpenaren eta merkaturatzearen sektoreetan, ehungintzan... sartzen dira, subiranotasun produktiboaren ikuspegitik.

## Garapen Arauemailea

**Errepublikaren Konstituzioak (2009)** etika ekonomiko oso berritzailearen zenbait kode eransten ditu.

**306. artikuluan**, ekonomia plurala antolamendu ekonomikoko forma hauek eratu dela esaten du: komunitarioa, estatala, pribatua eta sozial kooperatiboa, eta adierazten du egituratua dela osagarritasun, elkarrekikotasun, birbanaketa, segurtasun juridiko, jasangarritasun, oreka, justizia eta gardentasunaren printzipioen arabera.

Gainera, adierazten du, Estatuak:

- Antolamendu ekonomiko komunitarioa aitortu, errespetatu, babestu eta sustatuko duela, eta horren barruan sartzen direla jatorrizko nekazari-herri eta nazio indigenen printzipio eta ikuspegietan oinarritutako **bitzita sozialaren ekoizpen eta erreproduktzio sistemak**.
- Lehentasuna emango dio ekoizle txikien, hiri zein landa eremuetakoen, egitura asoziatiboaren babesari, eta landa eremuaren garapen produktiboa sustatuko du, herrialdeko garapen politiken oinarri gisa.
- Nekazarien erakunde ekonomikoak babestu eta sustatuko ditu, eta baita hiri ekoizle txikien elkarteak eta erakundeak ere.
- Trebakuntza tekniko eta teknologia edukitzeko aukera emango du, eta orobat erraztuko du maileguak edukitzeko, merkatuetara zabaltzeko eta mikro enpresa eta enpresa txikien sektoreen, artisautzaren, merkataritzaren, zerbitzuen, erakunde komunitarioen eta ekoizpen kooperatiben sektoreko zerbitzu finantzarioetara iristeko aukera.
- Estatuak egiten dituen erosketetan lehentasuna emango die nortasun kulturala duen artisau ekoizpenari eta enpresa txikiei, eta baita nekazarien erakunde ekonomikoari eta ekoizle txikien erakunde edo elkartei ere.
- Kooperatiben antolamendua eta garapena aitortu, sustatu eta arautuko du, lan solidario eta kooperaziozkoaren forma gisa.

Politika publikoetan ahaleginak egin badira ere gai hori kokatzeko, egia da herrialde honek oraindik ez duela Ekonomia Sozial eta/edo Solidarioari buruzko Legerik.

**Azterketa:** Konstituzioak adierazten du ekonomia sozial eta komunitarioak norbanakoaren interesa taldearen Ondo Bizitzearekin osatuko duela, eta, horrez gainera, aitortzen du antolamendu ekonomikoari dagokionez askotariko formak daudela; aniztasun hori ekonomia pluralaren berezkoa balitz bezala instituzionalizatzea proposatzen du, Estatuak baliabideak esleitzeko eta komunitateekin kontratatuzko aukera edukitzeko moduan onartuz ikuspegi juridikotik. Esparru berri horretan lehentasuna ematen zaie lan kudeatuan zentratutako forma ekonomikoari. Gainera, zentraltasuna ematen zaio soberakin ekonomikoaren birbanaketari, ondare publikoen hornikuntzaren eta inbertsio produktiboaren bitartez; era horretara, kontra egiten zaie proposamen neoliberalari, azken horiek estatuari ematen baitiote prozesu ekonomikoak zuzentzeko zeregina, eta berreskuratu egiten da gobernu nazionalaren eta eskualdeko gobernuen ardurapeko plangintza printzipioa.

Edonola ere, oinarri klasista duen oposizioko testuinguruak ez du amore eman, eta egiturazko aldaketetan aurrera egiteko denborak ezin izan dira azeleratu. Oinordetzan jasotako gizarte egoerak (muturreko pobrezia %45) azaltzen du orain arte inplementatutako politikak dirubonuen (eskola-laguntza, pentsioak, jaiotze aurreko arreta) eta oinarritako zerbitzuen hornidurarako inbertsioaren bitartez (osasuna, hezkuntza eta saneamendua) birbanatzeko politika sozialean zentratu izana.

## Ekudorko Errepublika

### Erreferentziak

Ekudorko Konstituzioa:

[[http://www.asambleanacional.gov.ec/documentos/constitucion\\_de\\_bolsillo.pdf](http://www.asambleanacional.gov.ec/documentos/constitucion_de_bolsillo.pdf)]

Herri Ekonomiaren eta Ekonomia Solidarioaren eta Herri Finantza Sektore Solidarioaren Lege Organikoa:

[[http://www.desarrollosocial.gob.ec/wp-content/uploads/downloads/2012/07/1\\_ley\\_y\\_reglamento\\_EPS.pdf](http://www.desarrollosocial.gob.ec/wp-content/uploads/downloads/2012/07/1_ley_y_reglamento_EPS.pdf)]

Ongi Bizitzearen Plan Nazionala 2013-2017: [<http://buenvivir.gob.ec/versiones-plan-nacional>]

Herri Ekonomia Solidarioaren Institutua: [<http://www.economiasolidaria.gob.ec/>]

Gizarte Inklusioko Ministerioa: [<http://www.desarrollosocial.gob.ec/>]

Herri Ekonomia Solidarioaren Idazkaritza Teknikoa (STEPS):

[<http://www.desarrollosocial.gob.ec/economia-popular-y-solidaria/>]

Gizarte Garapeneko Ministerioa: [<http://www.desarrollosocial.gob.ec/>]

Herri Ekonomia Solidarioaren Superintendentzia: [<http://www.seps.gob.ec/web/guest>]

### Instituzionalizazioa

Herri Ekonomiaren Institutua (2009) Ekonomia eta Gizarte Inklusioko Ministerioaren (MIES) mendekoa da. Institutu honek laguntza ematen die Herri Ekonomia Solidarioaren Legearen arabera garapen produktiboko prozesuak abian jarri nahi dituen herritarrei. Hainbat helburu ditu:

1. **Gaitasunak sortzea** Herri Ekonomia Solidarioaren eragileak subjektu ekonomiko-sozial-politiko gisa indartu daitezzen Ongi Bizitzearen erregimen berrian.
2. Herri Ekonomia Solidarioaren eragileen garapenerako **baldintzak sortzea**; horretarako, faktore produktiboetara hurbiltzeko aukera eskaintzea eta estatuko erakundeek eta gobernu autonomo deszentralizatuek, gizarte erakundeek eta komunitateak oro har bultzatzen eta/edo gauzatzen dituzten politikak, arauak eta ekintzak koordinatzea.
3. **Aukerak eta espazioak sortzea**, Herri Ekonomia Solidarioaren eragileen ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko, banatzeko, zirkulatzeko, finantzatzeko, merkaturatzeko eta kontsumitzeko prozesuak sendotu eta dinamizatu daitezzen.

Herri Ekonomia Solidarioaren Idazkaritza Teknikoa (STEPS) Garapen Ministerioaren barruan. **Nazioarteko Batzordearen** laguntza tekniko eta administratiborako instantzia. Herri Ekonomia Solidarioaren eta Herri Finantza Sektore Solidarioaren erakunde zuzentzailea da, bertan ematen eta koordinatzen dira sustapenerako eta pizgarriak emateko politikak, eta erakundeen jardura ekonomikoen funtzionamendua eta kontrola egiten da, politika horiek hobetzeko eta sendotzeko helburuarekin.

**Herri Ekonomia Solidarioaren Superintendentzia (SEPS) –2012-** Erakunde tekniko bat da, Herri Ekonomia Solidarioaren alorreko erakundeak ikuskatzeko eta kontrolatzeko; zuzenbide publikoko izaera juridikoa du eta autonomia administratibo eta finantzarioa, eta herri sektore ekonomiko eta solidarioaren garapena, egonkortasuna, sendotasuna eta funtzionamendu zuzena bilatzen du.

**Herri Finantza Sektorea eta Sektore Solidarioa arautzeko batzordea**, sektore hori arautzeko zeregina duena. Garapen Sozialeko eta Politika Ekonomikoko ministroek osatzen dute, eta baita Errepublikako Lehendakariaren ordezkari batek ere. Batzorde horrek Idazkaritza tekniko bat du, batzordeko lehendakariaren kargura.

## Garapen Arauemailea

**Konstituzioak (2008) 283. artikuluan** adierazten du "sistema ekonomikoa soziala eta solidarioa dela, eta antolamendu ekonomiko publiko, pribatu, misto, herrikoi eta solidarioaren formek eta Konstituzioak zehazten dituen besteek osatzen dutela", eta eranstean du "herri ekonomia solidarioa legearen arabera arautzen da eta kooperatiben, elkarteen eta komunitatearen sektoreak" hartuko ditu bere baitan.

**319. artikuluan** hainbat antolamendu-forma onartzen dira ekonomian, besteak beste, enpresa publiko eta pribatuak, mistoak, familiarrak, etxeak, autonomoak, komunitarioak, asoziatiboak eta kooperatiboak. Aipatutako azken sei formek osatzen dute herri ekonomia, eta azken hirurek, berriz, herri ekonomia solidarioak.

**Herri Ekonomia Solidarioaren Lege Organikoa eta Finantza Sektore Herrikoi eta Solidarioa (2011):** 1. Artikuluan honela definitzen du Herri Ekonomia Solidarioa: "ekonomia antolatze modua, zeinetan bertako kideek antolatzen eta garatzen dituzten, banaka edo taldean, ondasunen eta zerbitzuen ekoizpen, truke, merkaturatze, finantzaketa eta kontsumorako prozesuak, premiak asetzeko eta diru-sarrerak sortzeko, solidaritate, lankidetzeta eta elkarrekikotasuneko harremanetan oinarrituta, lehentasuna emanez lanari eta gizakiari, bere jardueraren subjektu eta helburu gisa, ongi bizitzera orientatua, naturarekin harmonian, jabetzearen, irabaziaren eta kapital pilaketaren gaitetik"

Antolamendu ekonomikoko modu horiek printzipio hauetan oinarritu behar direla adierazten da: a) ongi bizitzearen eta ongizate komunaren bilaketa; b) lana kapitalaren gaitetik agertzea eta interes kolektiboak banakako interesen gaitetik; c) genero berdintasuna; e) identitate kulturalaren errespetua; f) autokudeaketa; g) gizarte eta ingurumen erantzukizuna, solidaritatea eta kontuak ematea; eta h) soberakinen banaketa zuzena eta solidarioa.

Legeak, beraz, lau antolamendu-forma ezartzen ditu: sektore komunitarioa, asoziatiboa, kooperatibista eta herri unitate ekonomikoak. Lehenengo hirurak kolektiboak dira, eta azkenak irteera eman diezaike familiarrei edo are banakakoei ere. Hau da, Herri Unitate Ekonomikoei (UEP) herri ekonomiaren erakunde ez formalak eta derrigorrez solidarioak ez diren antolamenduak.

**Ongi Bizitzearen Plan Nazionala 2013-2017:** herri ekonomia solidarioaren formak onartzen ditu, eta, politika publikoak definitzeko, partaidetza mekanismoen sorrera iragartzen du. Era horretako hirugarren plana da, eta 8. helburu estrategikoa "Sistema ekonomikoa soziala eta solidarioa modu jasangarrian sendotzera" bideratzen du.

**Bidezko Merkataritzaren Ekuadorko Estrategia (2014)** bidezko merkataritzaren sektorerako proposamen politiko publiko nazional gisa, Gobernuaren helburu orokorrekin lerrotatua. Egiturazko bi helburu hauek proposatzen ditu, bestalde:

- Ekoizpenerako, merkaturatzeko, banaketarako eta kontsumorako gizarte harreman eta jardunbide berriak eraikitzea, justizian, berdintasunean eta erantzukidetasunean oinarrituta;
- Ekoizle txikien, artisauen eta langileen bizi-kalitate hobetzea, bidezko merkataritzaren alorreko ekintzaitelzei babesa emanez.

**Azterketa:** Ekuadorko konstituzioak garrantzi handiko aldaketak agintzen ditu ekonomiak naturarekin dituen harremanetan: "baliabide naturalen" erabilera arrazionala ez ezik, horiez jabetzeko arauak aldatzen ditu (ura ezin da pribatizatu) eta naturaren eskubideak txertatzen dira, ezagutzen dugun legedian lehen aldiz historian. Herri Ekonomia Solidarioaren Lege Organikoa erakunde berriak sortzen ditu, eta horiek aukerak sortu eta indartzeaz arduratzen dira. Lege horren indarguneetako batzuk honako hauek dira: finantza solidarioen sektorea kontuan hartzea; langile autonomoen elkarkotasuna; antzinako erreferentziak txertatzea, hala nola, Sumak Kawsay (Ongi Bizitzea); eta hainbat printzipio ezartzea, mugimendu alternatiboerako erreferentzia eginez, hala nola, bidezko merkataritza eta merkataritza arduratsua.

## — Latinoamerikako beste esperientzia batzuk

| Kolonbia  |
|---|
| <b>Erreferentziak</b>   |
| <p><b>Ekonomia Solidarioaren Superintendentzia:</b><br/>[<a href="http://www.supersolidaria.gov.co/">http://www.supersolidaria.gov.co/</a>]<br/>1998ko 454 Legeak ekonomia solidarioa arautzen duen kontzeptu esparrua zehazten du:<br/>[<a href="http://www.alcaldiabogota.gov.co/sisjur/normas/Norma1.jsp?i=3433">http://www.alcaldiabogota.gov.co/sisjur/normas/Norma1.jsp?i=3433</a>]</p>   |
| <b>Instituzionalizazioa</b>   |
| <p><b>Ekonomia Solidarioko Superintendentzia –Supersolidario- (1998).</b> Ekonomia solidarioko enpresen izaera juridikoa eta jarduera ikuskatzeko zeregina du. Elkartutako eragileen eta komunitatearen interesak babestea da helburua, eta, orobat, konfiantza sortzea eta sektorea sendotzea, Kolonbiaren garapen soziala eta ekonomikoaren alternatiba gisa.</p> <p><b>Ekonomia Solidarioaren Sail Administratiboaren –DANSOCIAL–</b> helburua da erakunde solidarioak sustatzeko eta sendotzeko politikak azaltzea, orientatzea eta garatzea. Zuzenean gobernuaren mende dago.</p>  |
| <b>Garapen Arauemailea</b>  |
| <p><b>Ekonomia Solidarioaren 454. Legea (1998),</b> zeinak zehazten duen ekonomia solidarioa arautzen duen kontzeptu esparrua. Bertan, era honetara definitzen da Ekonomia Solidarioa: "sistema sozioekonomikoa, kulturala eta ingurumenekoa, jardun autokudeatu solidarioek, demokratikoez eta humanistek identifikatutako elkarte modukoak, irabazi asmorik gabeak, gizakien erabateko garapenerako, haiek ekonomiaren subjektu, eragile eta helburutzat hartuta.</p> <p>Udalerrri mailan aipatzekoak dira:</p> <p><b>Bogotá Hiriburu Barrutia.</b> 2006ko 315. Dekretuaren bitartez Elikagaien Hornikuntzarako eta elikagaien Segurtasunerako Plan Maisua egokitzen da, eta bertan nabarmentzen da ekonomia solidarioa eta elkarkotasuna izan litekeela lurralde bateko ekoizleen, eraldatzaileen eta banatzaileen antolamendua sendotzeko aukeretako bat.</p> <p><b>Medellín:</b> 2011ko 356. Akordioa, zeinaren bitartez "egokitzen den politika publikoa Medellínko ekonomia sozial eta solidarioa", ondasunak eta zerbitzuak ekoizten eta merkaturatzen dituzten jabetzaren eta lanaren hainbat forma elkarkor eta solidario biltzen dituen enpresa-garapenari laguntzeko helburuarekin.</p> |
| <p><b>Azterketa:</b> Amerikako sektore solidarioari dagokion lege modernoentzat hartua da, eta bera da "ekonomia solidarioa" hitza egokitzen duen lehenengo lege nazionala, eta mundukoa seguru asko, eta baita legedi kooperatiboa kontzeptu-esparru horren azpian sartzen duen lehena ere. Lege horren lorpenen artean bereziki aipagarria da 2. Artikuluan egindako definizioa, "sistema sozioekonomiko, kultural eta ingurumeneko bat" aipatzen baitu; era horretara, irizpide ekonomiko-enpresarial hutsetan ainguratutako definizioak gaingitu eta legedi kooperatiboak erabili ohi duen printzipio sail eguneratuagoa finkatzen du. Ekonomia solidarioa ekonomiaren hirugarren sektore gisa aipatzen du, kapitalista eta estatalaz bestelakoa, izaera elkarkorrekoa eta lankidetzaren eta elkar laguntzaren moduko balioek arautua. DANSOCIALen arabera, hiru dimentsio hauek osatzen dute sektore solidarioa: sektore kooperatiboa eta elkarrekikoa; erakunde komunitarioen beste forma batzuk; eta garapeneko jarduera solidarioak egiten dituzten antolamendu sozialak.</p>   |

## Mexiko

### Erreferentziak

Gizarte Ekonomiako Institutu Nazionala – INAES

[<http://www.inaes.gob.mx/>]

Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Legea:

[[http://www.economiasolidaria.org/files/Ley\\_economia\\_social\\_y\\_solidaria\\_mexico.pdf](http://www.economiasolidaria.org/files/Ley_economia_social_y_solidaria_mexico.pdf)]

### Instituzionalizazioa

**Ekonomia Solidarioaren Institutu Nazionala–INAES-** Ekonomiako idazkaritzatik deszentratutako organoa, zeinaren helburua den ekonomiaren sektore soziala sustatzeko politika publikoak antolatzea

### Garapen Arauemailea

**Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Legeak (2012)** helburu bikoitza du:

1. Ekonomiaren Sektore Sozialaren Jarduera Ekonomikoaren garapena, sendotasuna eta ikusgarritasuna sustatzeko mekanismoak ezartzea
2. Ekonomiaren Sektore Soziala sustatzeko, bultzatzeko eta sendotzeko arauak definitzea, herrialdearen garapen sozial eta ekonomikoari, lan duineko iturrien sorrerari, demokraziaren sendotzeari, diru-sarreraren banaketa berdinari eta gizarte ondarearen sorkuntza handiagoari lagunduko dien sistema eraginkortzat hartuta.

**Azterketa:** Mexikon diharduten Ekonomia Solidarioko Enpresen Mexikar Kontseiluak (CMEES) adierazten du Legea ez dela Ekonomia Sozial eta Solidarioaren sustapen eta garapen prozesuaren premietara lotzen eta lege horren bitartez gehiago laguntzen zaiola ekonomia sozialaren kontrolari eta korporatibizazioari eta salatzen du ekonomia solidarioko erakundeek ez zutela parte hartu lege proposamena osatzeko prozesuan.

## —• Iturriak

Guerra, Pablo. Las legislaciones sobre economía social y solidaria en América Latina. Entre la autogestión y la visión sectorial. Zuzenbideko Fakultatearen Aldizkaria, 33. zk. Montevideo 2012ko uztaila-abendua, 73-94. orrialdeak.

Coraggio, Jose Luis. La presencia de la Economía Social (ESS) y su institucionalización en América Latina. Hegoa Mintegia.

CLAC, FAIRTRADE. Políticas Públicas para el fomento de un comercio justo y solidario. Primera fase de la investigación: los casos de Colombia, Ecuador y Brasil; Francia, Italia y España. 2015eko ekaina.

**El papel de las instituciones y políticas públicas a favor de las cooperativas en México** Federico Luis Pohls Fuentevilla, Ekonomia Solidarioko Enpresen Mexikar Kontseiluko Zuzendaria

Cruz, A. (2011) "La acumulación solidaria" Revista de Estudios Cooperativos 16. alea, 1. zk., Montevideo (12-37. orrialdeak)